



BURLATAKO KULTUR ERAKUNDEEKIN LANKIDETZAN ARITZEKO LAGUNTZAK, 2024KO JARDUERA ARTISTIKO ETA KULTURALAK EGITEKO

HITZAURREA

Burlatako Udalak proposatzen du 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra bitartean herrian dantza, musika, antzerkia, arte plastikoak, jai eta ospakizun tradizionalak eta antzeko kultur edo arte jarduerak egiten dituzten tokiko elkarteei dirulaguntzak ematea. Hori guztia Burlatako Udalaren dirulaguntzen udal ordenantza orokorraren arabera (2021eko abuztuaren 9ko NAO, 185. zk.).

1. XEDEA

Burlatan dantzarekin, musikarekin, antzerkiarekin, arte plastikoekin, jai eta ospakizun tradizionalekin eta antzeko kultur edo arte jarduerekin zerikusia duten kultur jarduerari laguntza ekonomikoa ematea da deialdi honen helburua.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira:

- Aperitiboak, bazkariak eta antzeko jarduerak, izaera herrikoia dutenak eta herritar guztiei zuzenduta daudenak izan ezik, Burlatako Udalaren alde aurreko baimenarekin.
- Kanpalekuak, ikastaroak, egonaldiak eta bidaiak.
- Kultura-jardueren sariak, garaikurrak eta gauzako ordainketak.

2. DEIALDIAREN FINANTZAKETA

Deialdia, gehienez, 15.000 eurokoa izango da, 2024ko aurrekontuko 33400-4820001 aurrekontu-partidaren kontura (dirulaguntzen deialdi arrunta).

2.1. BETEKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

Laguntza hauek jasotzen dituzten elkarteek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Irabazi-asmorik gabeko elkarte izatea.
- b) 2021eko urtarrilaren 1a baino lehen lege eraturako elkarte izatea.
- c) Egoitza soziala eta fiskala Burlatan izatea.
- d) Ezin izango dira onuradun izan dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako egoeraren batean dauden erakundeak.
- e) Burlatako Udalaren Elkarteen Udala Erregistroan inskribatuta egotea eta datuak eguneratuta izatea.

Elkarte onuradunen **betebeharrak** honako hauek dira:

- a) Dirulaguntza ematea eragin duen jarduera burutzea.
- b) Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikatzea ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen direla.
- c) Laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduketei men egitea, bai eta kontrol-organo eskudunek egin dezaketen egiaztapen- eta finantza-kontrolerako beste edozein jarduketari ere, aurreko jarduketetan eskatzen zaien eta udal-artxiboetan ez dagoen informazio guztia emanez.



- d) Kultura eta Jaien Arloari jakinaraztea laguntza ematea eragin zuten baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada.
- e) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Dirulaguntzei buruzko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duena) eta Udal honen dirulaguntzen udal-ordenantzaren (2021eko abuztuaren 9ko 185. NAO on argitaratua) aurreikusitako kasuetan jasotako funtsak itzultzea.
- f) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrearen 13. eta 14. artikuluetan eta Udal honen dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 11. artikuluan (2021eko abuztuaren 9ko 185. NAO on argitaratua) araututako gainerako betebeharrak.
- g) Deialdi honetako bederatzigarren klausulan adierazitakoak.

3. AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

3.1. Oinarriak www.burlata.eus udal webgunean eta Dirulaguntzen Oinarri Nazionalean egonen dira eskuragarri, eta laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

3.2. 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra bitartean egindako jarduerak aurkeztu ahal izanen dira deialdira. Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 6an 14:00etan amaituko da.

3.3. Eskaerak telematikoki aurkeztuko dira Udalaren egoitza elektronikoa edo modu presentzian Burlatako udal erregistroetan. Kultur Etxeko Erregistroan edo Burlatako Udaleko Erregistro Orokorrean (Larrañetako plaza, z/g) aurkeztu ahal izango dira. Halaber, Udalaren Erregistro Orokor Elektronikoa edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako tokietako batean aurkeztu ahal izango dira.

Posta Bulegoetan ere bidali ahal izango dira bide telematikoz, ORVE bidez, helmugako kode digitalera: L01310608.

3.4. Epea ezin izanen da luzatu. Epe arruntetik kanpo aurkeztutako eskaerak automatikoki ukatuko dira.

4. DOKUMENTAZIOA

4.1. Laguntza-eskabideak deialdi honen I. ERANSKINEAN jasotako eskabide-ereduaren arabera aurkeztuko dira.

4.2. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira (ikus I. ERANSKINA):

- a) Estatutuen ale bat. Aurreko deialdietan parte hartu bada edo erakundea Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta badago, ez da beharrezkoa izanen, estatutuak aldatu direnean izan ezik.
- b) Elkartearen IFKren fotokopia (ez da beharrezkoa aurreko deialdietan parte hartu badu edo erakundea Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuta badago).
- c) Jardueraren programa xehatua eta aurrekontua (gastuak eta sarrerak), deialdi honen II. ERANSKINEAN jasotako eskabide-ereduaren arabera banakatuta. Fitxako atal guztiak bete beharko dira.
- d) Erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, jarduera garatzeko beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatu zaizkien dirulaguntzen zerrenda jasotzen duena. Eskabideak ebatzi gabe dauden edo dagoeneko ebatzi diren adieraziko da; kasu horretan,



dirulaguntza emateko ebazpenaren kopia erantsiko da. Beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrerarik eskatu edo jaso ez badu, erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko zaio.

- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- f) Jardueraren memoria, III. ERANSKINEAN jasotako justifikazio-ereduaren arabera.
- g) Egin diren zabalkunde-euskarri guztien ale bat, baita sare sozialetan zabaldu diren euskarri digitalena ere. Kultur etxeko programaz haraindiko jarduera publizitaterik egin ez bada, hori horrela izan dela adieraziko da; bestela, publizitate-euskarriak ez direla entregatu ulertuko da.
- h) Dagozkien fakturak eta egindako gastuen ordainagiriak. Fakturretan honako hauek zehaztuko dira: erakunde ordaintzailea, gastuaren data, kontzeptua, guztizko zenbatekoa, aplikatutako zergak banakatuta, eta enpresaren izena (NAN edo IFK), jaulkitzailearen zigilua eta sinadura (fakturazio-betebeharrak arautzen dituen maiatzaren 17ko 205/2004 Foru Dekretuaren arabera). Ordainketa justifikatzeko, banku-laburpena aurkeztu beharko da, edo, eskudirutan ordainduz gero, behar bezala sinatuta eta zigilatuta jaso beharko dut emandako zenbatekoa eta ordainketaren kontzeptua.
- i) Laguntza eskatzen duen elkartearen izenean dagoen banku-kontuaren titulartasun-zurtagiria.

4.3. Laguntza-eskaerak eskatutako datuak biltzen ez baditu, hamar eguneko epea emango da hori zuzentzeko, eta adieraziko da hori egin ezean eskaerari uko egin zaiola ulertuko dela.

4.4. Udalak espedientea ebazteko beharrezkoa den beste edozein informazio edota dokumentazio osagarri eska dezake.

Diruz lagundutako jarduera gauzatzen ez bada edo aurreko ataletan adierazitako agiriekin eta adierazitako epean justifikatzen ez bada, ez da jarduera horretarako dirulaguntzarik emanen.

5. JARRAIBIDEA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

5.1. Dirulaguntzen prozedura bideratzeko organo eskuduna Burlatako Udaleko Kultura eta Jaien Arloa izanen da. Arlo horrek ofizios egingo ditu ebazpen-proposamenaren aurre-ebaluazioa egiteko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak. Era berean, organo instruktorea eskaerak kudeatzeaz, jarraipena egiteaz eta aurre-ebaluazioaz arduratzen da, deialdian ezarritako balorazio-irizpide, -modu eta -lehentasunen arabera, bai eta nahitaezko txostenez ere, erreklamazio eta errekurtsoen kasuan, ebazpen-proposamena egiteaz gain, hori guztia Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 8.3 a) artikuluan eta Udal honen dirulaguntzen udal-ordenantzan (2021eko abuztuaren 9ko 185 zenbakia).

Aurre-ebaluazioko fasea amaitutakoan, espedientea Balorazio Batzordera bidaliko da, eskabideak ebaluatzeko. Balorazio Batzordeak txosten arrazoitua egin beharko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko. Espedientea ikusita egindako ebazpen-proposamen hori ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio, esku-hartze bidezko fiskalizazioa egin ondoren.



5.2. Balorazio Batzordea Burlatako Udaleko alkateak ezarritako irizpideen arabera osatuko da, dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.
3 kidek osatuko dute: alkatetza, kontu-hartzailatza edo idazkaritza, eta idazkaritza beteko duten kulturako teknikariak. Balorazio proposamena Kultura eta Jaien Sailean jakinaraziko da. Deialdian parte hartzen duten erakundeetako kideek ezin izango dute parte hartu.

5.3. Batzordeak honako hauek hartuko ditu kontuan balorazioa egiterakoan:

- Elkartearen ibilbidea eta azken 5 urteetan edo, epe hori baino laburragoa bada, elkartea eratu zenetik egindako jarduerak (15 puntu).
- Programaren kalitatea (25 puntu).
- Helburuen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia (10 puntu).
- Jarduerak herritarrengan duen eragina (15 puntu).
- Programaren bideragarritasun ekonomikoa eta autofinantzaketarako gaitasuna, baliabide ekonomikoak barren, bazkideen ekarpenen eta abarren bidez lortu diren adierazita. (25 puntu).
- Publizitatea, deialdiko 9. puntua betez (10 puntu).

5.4. Ezinbestekoa izango da II. ERANSKINEAN jasotako fitxen atal guztiak betetzea.
jasotako eskaerak baloratu ahal izateko.

6. ORGANO ESKUDUNA, EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA

6.1. Organo eskuduna:

Dirulaguntzak emateko prozedura Alkatezari dagokio ebaztea, ezartzen dituen eskuordetzei kalterik egin gabe.

6.2. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa da, eskabideak aurkezteko azken egunetik zenbatzen hasita. Kontuan hartu behar da epe hori eten daitekeela, baldin eta interesdunari eskatzen bazaio eskabidean akatsak zuzentzeko edo dokumentuak aurkezteko. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskatzaileak bere eskaera ezetsitzat jo ahal izango du, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 25.5 artikulua eta Udal honen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 17.4 artikulua, 2021eko abuztuaren 9ko 185 aldizkaria.

6.3. Emakida-ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorriz.

7. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA EMATEA

Laguntza norgehiagoka-erregimenean emanen da.

Emandako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa jardueraren aurrekontuaren ehuneko gisa ulertuko da, behar bezala justifikatuta (faktura eta horren ordainagiria aurkeztuta), eta ez da kostuaren % 75 baino handiagoa izanen.

Jarduera jakin baterako dirulaguntza publikoen edo ekarpen pribatuen zenbatekoak ezin izango du gainditu justifikatutako aurrekontuaren % 100; bestela, deialdi honen arabera emandako dirulaguntza proportzionalki murriztuko da, aurrekontu horretara egokitzeko beharrezkoa den zenbatekoan. Nolanahi ere, emandako laguntza guztiek ez dute 2. klausulan ezarritako aurrekontu-muga gaindituko.



Dirulaguntza bateragarria izanen da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, Estatuakoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak. Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izanen du, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu. Horretarako, zinpeko aitortpena egin beharko da, bai eskabidean, bai urteko justifikazioan.

Laguntzak emateko, indarrean dagoen aurrekontuan kreditu erabilgarria egon beharko da. Dagokion aurrekontu-partida agortuta, Burlatako Udala ez da behartuta egongo laguntzak funts gehiagoz hornitzera.

8. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

8.1. Emandako laguntzen zenbatekoa proiektua amaitzean ordainduko da, justifikatu ondoren, deialdiaren 4. paragrafoan aurreikusitako moduan.

8.2. Ezin izanen da dirulaguntzaren ordainketa egin pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean, edo itzulketa bidezko ebazpenagatik zorduna den bitartean.

Salbuespen gisa, Burlatako Udalak ofizioz kitatu ahal izango ditu aldez aurretik dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek kobratzeke dituzten zorrak, dirulaguntza horien konpentsazio bidez, edo horien zati baten konpentsazio bidez, zor diren kopuruekin. Salbuespen hori aplikagarria izan dadin, espedientean justifikatuta geratu beharko da, txosten tekniko baten bidez, neurri horren salbuespena egiaztatzen edo gomendatzen duten arrazoiak.

Dirulaguntza justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada, osorik edo zati batean itzuli beharko da, ez-betetze maila eta gainerako inguruabarrak kontuan hartuta.

8.3. Ekitaldi ekonomiko jakin baten kontura laguntza bat emateak ez du esan nahi hurrengo urteetan dirulaguntza emateko eskubideak eskuratzen direnik.

9. ONURADUNEN BESTE BETEBEHAR BATZUK

9.1. Diruz lagundutako jarduera garatzean gorabeheraren bat gertatuz gero, horren berri idatziz ematea.

9.2. Dokumentazioan eta inprimatutako publizitatean Burlatako Udalaren eta, hala badagokio, Burlatako Kultur Etxearen lankidetzat aipatzea, eta dagozkion logotipoak jartzea:



Kultura eta Jaietako Arloa
Área de Cultura y Fiestas

Burlatako Udala
Ayuntamiento de Burlada

Ronda de las Ventas 1/Bentetako Ingurubidea 1
31600 Burlada (Navarra) / Burlata (Nafarroa)
Tfno: 948 13 64 20
www.burlada.es / www.burlata.eus
CIF / IFZ G/31169386

- Jarduera Burlatako Udalak diruz laguntzen duenean:



Ayuntamiento de Burlada
Burlatako Udala

- Jarduera kultur etxeko instalazioetan egiten denean



Casa de Cultura de Burlada
Burlatako Kultur Etxea

Logoak euskarri digitalean behar izanez gero, Kultura eta Jai Saileko bulegoetan eskatu ahal izanen dira.

9.3. Jardueren publizitatea euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko da, udal-ordenantza betez, bai karteletan, bai sare sozialetan, etab.

Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren bat betetzen ez bada, laguntza bertan behera geratuko da edo, hala badagokio, justifikatu gabekoaren zati proportzionala murriztuko da, eta horrek hasieran jasotako zenbatekoa itzultzea edo dirulaguntzaren bigarren zatia murriztea ekar dezake.

10. JASOTAKO KOPURUAK ITZULTZEA

Jasotako zenbatekoak honako kasu hauetan itzuliko dira:

- a) Justifikatzeko betebeharren bat ez betetzea.
- b) Laguntza lortzea horretarako eskatzen diren baldintzak bete gabe edo deialdi honetako 3. artikuluan eskatzen diren agiri bidezko justifikazioak edo diru-sarreraren eta gastuen egiaztagiriak faltsutuz. Dirulaguntza ematea eragin zuten baldintzetako bat edo batzuk betetzen ez dituzten edo behar bezala egiaztatzen ez dituzten pertsonen emandako baldintzaren bat galtzea.
- c) Laguntza emateko ezarritako baldintzak berariazko baimenik gabe ez betetzea edo aldatzea.
- d) Ondasunak dirulaguntzaren xede den helburu zehatzerako erabiltzeko betebeharra ez betetzea, baldin eta haien zenbatekoa ez bada eman ziren helbururako erabili.
- e) Proiektuan funtsezko aldaketak egitea, Burlatako Udalaren alde aurreko eta berariazko baimenik gabe.
- f) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan eta 2021eko abuztuaren 9ko 185. zenbakiko NAO n argitaratutako Udal honen dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren IV. tituluko I. kapituluan xedatutakoaren arabera aurreikusitako gainerako kasuetan, eta onuradun izaera galtzeko justifikatutzat jotzen den beste edozein arrazoitan.

Burlatako Udaleko Kultura eta Jaien Arloak eskaera-espeditenteak gainbegiratzeko funtzioak gordetzen ditu; hala ere, behar ez bezala lortu, destinatu edo justifikatu izanaren zantzuak daudenean, aplikatu beharreko legerian aurreikusitako neurri egokiak hartu ahal izango dira.

Aplikagarria da aipatutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 49. artikuluan eta hurrengoetan eta 2021eko abuztuaren 9ko 185. NAO n argitaratutako Udal honen dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren V. tituluan aurreikusitako finantza-kontrolaren prozedura.

11. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Zehapen-prozedura izapidetuko du Burlatako Udaleko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren (2021eko abuztuaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 185. zenbakian argitaratua) arau-hausteei eta zehapenei buruzko artikuluetan jasotako inguruabarretako bat gertatzen denean, bai eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian aurreikusitako gainerako kasuetan ere.

12. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Kultura-jardueretarako prestazio ekonomiko horiek beste administrazio publiko batzuetatik edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik datozen antzeko helburuko beste laguntza batzuekin bateragarriak direla deklaritzen da, betiere guztizko zenbatekoak kostuaren % 100 gainditzen ez badu.

13. ONARPENA ETA INTERPRETAZIOA

- a) Deialdietan parte hartzeak deialdiaren oinarriak onartzea dakar.
- b) Burlatako Udalari dagokio deialdien oinarriak interpretatzea.
- c) Onuradunek ez badute betetzen deialdiak arautzen dituzten oinarri partikular hauetan ezarritako edozein betebeharrak edo baldintza, dirulaguntzari uko egitea ekarriko du berekin, eta ofizioz ezeztatu ahal izango da.

14. DATUEN BABESA

Burlatako Udala da tratamenduaren arduraduna.

Tratamenduaren helburua: Laguntzen deialdia egitea. Dirulaguntzak emateko baldintzak betetzen diren baloratzea. Emandako laguntzen jarraipena eta kontrola.

Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere, udal bulegoetara, dpd@burlada.es helbidera edo 39/2015 Legean aurreikusitako edozein modutara joz.

Informazio gehiago: <http://www.burlada.es/general/politica-de-privacidad>

15. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA

Deialdi honen eta deialdi hau betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, aukeran, errekurtsio hauetako bat aurkez daiteke:

Berraztertze errekurtsioa, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean. Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Iruñeko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.